



Aretxabaletako
Udala



eskoriatzako
udala

ARETXABALETAKO ETA ESKORIATZAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

ESKOLA AGENDA 21-i BURUZKOA

Aretxabaletan, 2016ko otsailaren 4an.

BILDURIK

ALDE BATETIK Unai Elgoro Oianguren jauna, Aretxabaleko alkatea, Udalaren izenean eta ordezkaritza

ETA BESTETIK Jose Ramón Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako alkatea, Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkaritza.

DIHARDUTE

Unai Elgoro Oianguren jauna, Aretxabaletako Udalaren izenean eta ordezkari bezala, 2016ko urtarilaren hamazortzian izandako Osoko bilkuran emandako ahalmenak erabiliz.

José Ramón Zubizarreta Alegria jauna, Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkari bezala, 2015eko azaroaren hogeita lauan izandako Osoko bilkuran emandako ahalmenak erabiliz.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Udal biek konsziente dira garrantzitsua dela udalerri bietako ikastetxeak parte hartzea Eskola Agenda 21eko prozesuan.

Zabalkunde eta eragin handia duen programa honen oinarrizko helburuak hauek dira:

- Hezkuntza komunitatean ikastetxearen kalitatea eta iraunkortasuna lortzeko balore eta jarrerai buruzko gogoeta bultzatzea.
- Herritar partehartzaileak hezitzea tokiko esparruan edo esparru globalean ingurumen arloko arazoak aurreikusteko eta konpontzeko, eta baliabideen erabilera arduratsua egiteko.
- Udal erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea bultzatzea Tokiko Agenda 21ean parte hartuz.

BIGARRENA: Eskola Agenda 21 Tokiko Agenda 21eko alde bat izanik, funtsezkoa da Udalen inplikazioa aipatutako programa garatzeko. Horrexegatik, udal biek programara atxikitu diren ikastetxeei laguntza teknikoa emateko konpromisoa hartuta dute eta, gainera, ateak zabalik dituzte beren proposamenak udal arduradunen aurrean aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA: Eskola Agenda 21aren proiektua osatzeko diseinu didaktikoa eta jardueren dinamizazioa lortzeko udal biek konpromisoa hartu dute aholkularitza teknikoa emateko. Horretarako, giza baliabideak eta materialak beharrezkoak dira.



Aretxabaletako
Udala



eskoriatzako
udala

LAUGARRENA: Gaur egun, kontuan hartuta mugatuak direla udal biek dituzten giza baliabideak eta materialak, egokitzen jotzen da era koordinatuan eta batera elkarri laguntzea Eskola Agenda 21eko programara atxikituko diren ikastetxeekin hartutako konpromisoak betetzeko. Hau guztia, eraginkortasun handiagoa betetzeko eta gastua gehiago razionalizatzeko.

BOSGARRENA: Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 4. artikulua administrazioen arteko harremanei buruzko printzipioak jasotzen ditu eta horien artean, 4.1.d) artikuluan lankidetzaren eta laguntza aktiboa eskaintzea jasotzen da eskumena modu eraginkorrean baliatzeko.

SEIGARRENA: Lankidetzaren hau modu desberdinen bidez gauzatu daiteke eta horien artean, aipatutako legean arautzen den lankidetzaren hitzarmenaren bidez izan daiteke. Bestalde, kontuan hartu behar da Sektore Publikoko kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.1.c) artikulua kontratuen legetik at uzten dituela lankidetzaren hitzarmenak.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honen bidez, Aretxabaletako Udalak Eskoriatzako Udalaren laguntza izango du Eskola Agenda 21 proiektua behar bezala gauzatu ahal izateko honako klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENENA: Aretxabaletako Udalak eta Eskoriatzako Udalak lankidetzaren aritzeko konpromisoa hartzen dute beren herrietako ikastetxeekin administrazio biek hartu dituzten obligazioak betetzeko, Eskola Agenda 21eko programa gauzatu ahal izateko.

BIGARRENA: Alde bakoitzak hartzen dituen konpromisoak:

- Eskoriatzako Udalak:

Kontuan hartuta Eskoriatzako Udalak arlo honetan dagoeneko baduela eskarmentua, Aretxabaletako udalarentzat oso lagungarria izango dela, eta lan-ordu kopuru asko aurrezteko ekarriko duela aurreko klausulan aipatutako helburua lortu ahal izateko, Aretxabaletako Udalak Eskoriatzako Udaleko teknikariaren laguntza izango du eta, horren ondorioz, besteak beste, Eskoriatzako Udalaren materialak, dokumentuak.... erabili ahal izango ditu.

- Aretxabaletako Udalak:

Aretxabaletako Udalak 6.216,90 euroko ekarpena egingo du. Horretarako, Aretxabaletako Udalak 2016ko eta 2017ko udal aurrekoretan partida bat jasoko du.

HIRUGARRENA: Aretxabaletako Udalak bigarren klausulan aurreikusitako ekarpen ekonomikoa egingo du EUSKADIKO KUTXA erakundearen irekitako 30350044850440900025 kontu korrontean. Kontu honen titularra Eskoriatzako Udala da eta honako epeetan ingesatuko zaio:

1. Lehenbiziko zatia, diru-laguntzaren %33koa, 2016ko urte amaieran, 2016ko abenduaren 31a baino lehen.



Aretxabaletako
Udala



eskoriatzako
udala

2. Bigarrena zatia, diru-laguntzaren %33koa, 2017ko martxoaren 31a baino lehen.
3. Azken zatia, gainontzeko diru-laguntzarena, 2016-2017 ikasturtea amaitu ondoren, 2017ko uztailaren 31a baino lehen.

LAUGARRENA:

Lankidetz hitzarmen honen iraupena 2016-2017 ikasturtearena izango da eta ez du luzapenik izango. Dena den, Udal biek ikasturtean zehar egindako lana trukatu ahal izango dute Eskola Agenda 21 proiektua ahalik eta modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko.

BOSGARRENA: Hitzarmenaren izaera juridikoa:

Lankidetz hitzarmen honek izaera administratiboa du eta juridikoki Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 4.1-d) artikuluan kokatzen da. Beraz, bere aplikazio zuzena baztertu egiten da, nahiz eta testu legalaren printzipioak aplikatu ahal izango diren bere indarraldian sor daitezkeen zalantza eta hutsuneak erabakitzeko.

Alde biek esandako guztiarekin ados egonik, hitzarmen honen bi ale izenpetzen dituzte, helburu bakarrarekin, goian adierazitako leku eta egunean.

ARETXABALETAKO UDALA

Unai Elkoro Oianguren

ESKORIATZAKO UDALA

Jose Ramón Zubizarreta Alegria